Juan José García de Acilu Perez jauza
And. Lucia Elorza Loreno

IDAZKARIA: Lara Salceda Villaumbrales

Santi kurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila hogeita hiruko ekainaren hogeita seian, arratsaldeko zortzirak eta hogeita zazpi minutu direnean, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ohiko bilkura egiteko, Ibernaló Basterra Txasko Alkate andrea buru dela, eta bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2c) artikuluekin eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90. artikuluekin bat etorritz, beharrezko quoruma hasi ahal izateko egiaztatzen da, eta ondoren, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

1. AURREKO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Lehendakari andreak galdetu du ea korporazioko kideren batek oharren bat egin behar duen 2023ko ekainaren 17an egindako bilkuraren aktari buruz. Akta horren kopia bana helarazi zitzaien zinegotziei bilkura honetarako zitazioarekin batera.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute.


Aurkeztutako akta gehiengo osoz onartu da. Lehendakari andreak akta hori onartutzat jotzen du, eta akta-liburura transkribatzeko agintzen du, AJAren 110.2. artikuluekin bat eginez.

2. ALKATETZAREN DEKRETUAK

AJaren 42. artikuluan agindutakoa betetzeko, Alkateak labor azaldu dizkio Udaltzari azken osoko bilkuratik hona hartu dituen ebazpenak. Hona hemen ebazpenak:

DECRETOS 2023

143	2023/05/18	2023KO TURISMO INBERTSIOEI AURRE EGITEKO AFAKO DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA DEKRETUA
144	2023/05/18	ORBISOKO HERRERIA KALEKO 20. ZBK ESTALKIA BIRGAITZEKO OKUPAZIO LIZENTZIA EMATEA
145	2023/05/19	BETEARAZTE SUBSIDIARIOA, OBLIGAZIODUNAREN KONTURA ETA KONTSERBATZEKO BETEHEARREN MUGARAINO – ARQUILLO DE ARRIBA 1 – ANTOÑANA
146	2023/05/19	BETEARAZTE SUBSIDIARIOA, OBLIGAZIODUNAREN KONTURA ETA KONTSERBATZEKO BETEBEHARRAREN MUGARAINO- LA VILLA 16 – KANPEZUK
147	2023/05/22	BANKU BILDAKETA ONARTZEA
148	2023/05/23	LURSAILAREN ALDI BATERAKO LAGAPENAGATIKO ORDAINKETA ONARTZEA
149	2023/05/25	BANKU BIDALKETA ONARTZEA
150	2023/05/25	IBILGAILUARI BAJA EMATEAGATIK IVTM ITZULTZEA
151	2023/05/25	HIRIGINTZAKO PLANGINTZAREN ETA INGURUMEN EBALUAZIOAREN AGIRIAK EGITEKO AFAKO DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA ONARTZEA
152	2023/05/31	MAIATZARI DAGOZKION LANGILEEN NOMINA-AGIRIAK ONARTZEA
153	2023/05/31	ENERGIA-ZIURTAGIRIEN KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA 4/2019 LEGEA EZARTZEKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
154	2023/05/31	ALAKTEORDEAREN EGINKIZUNAK ESKORDETZEA
156	2023/05/31	GARBIKETA-ZERBITZUEN KONTRATUA ALDATEZA
157	2023/06/01	IGERILEKAK ROBOTEZ HORNITZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA (GARBIGAILU ELEKTRIKOAK)
158	2023/06/02	HAUTESKUNDE OROKORREI BURUZKO KARTELAK, PANKARTAK ETA PUBLIZITATEA JARTZEKO LEKUAK ERRESERBATZEA
159	2023/06/02	425 LURSAILE 3. POLIGONOAN AURREFABRIKATUTAKO ETXOLA JARZTEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
160	2023/06/02	SANTIKURUTZE KANPEZUKO SAMUEL PICAZA PLAZAN, 28 ZBK ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
161	2023/06/02	BANKU SORTA
162	2023/06/05	BEHARGINEN LAN POLTSATIK IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEA
163	2023/06/07	ANTOÑANAKO 1. ZENBAKIKO GOIKO ARKUPEAK EGITEKO AGINDUAREN BEHIN BETIKO LIKIDAZIOA ONARTZEA
164	2023/06/07	02/2023 KREDITUA GAITZEKO ESPEDIENTEA
165	2023/06/08	LANBIDEREN PROGRAMAN KONTRATATUTAKO LANGILEEN LIKIDAZIO ETA KITAPENA ONARTZEA
166	2023/06/12	IGERILEKUAK MANTZENTZEKO ZERBITZUEN KONTRATUA ALDATZEA
167	2023/06/12	APARTEKO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA, EGINDAKO AZKEN BILKURAREN AKTA ONESTEKO
168	2023/06/13	LA VILLA 16 ZENBAKIKO LANAK SUBSIDIARIOKI EGITEKO ESPEDIETNEA ONESTEA
169	2023/06/13	UDAL PILITALEKUKO FRONTISA KONPONTZEKO OBRA TXIKIEN EXPEDIENTEA ONARTZEA
170	2023/06/14	TOKI ERAKUNDEETAN ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO LAGUNTZEN KONKURRENTZIA – GAZTELURA IGOTZEKO KALEA 16 1.A ETXEBIZITZA SOZIALA
171	2023/06/14	ENPLEGURAKO UDAL DIRULAGUNTZA AUTOENPLEGUA ONARTZEA
172	2023/06/14	UDALBALTZA BERRIA OSATZEKO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA
173	2023/06/19	BEHIN BETIKO ONARPENA, LANGILE POSTURAKO ONARTUTAKOEN ZERREDAN ETA EPAIMAHAIKIDEEN IZENDAPENA



174	2023/06/19	BANKU BIDALKETA ONARTZEA
175	2023/06/19	SANTA ELENA KALEKO 6.ZENBAKIAN ESTALKIA ORDEZTEKO ETA JARDUKETA PUNTUALAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
176	2023/06/20	ETXEBIZITZA KOMUNITARIOKO LURZORUAREN OBRA-KONTRATU TXIKIA ALDATZEA
177	2023/06/21	HAUTESKUNDE OROKORREN MAHAIKO ZOZKETA BEREZIA EKAINAREN 26AN 10:30ETAN

Alkateak hartu du hitza eta aipaturako dekretu batzuen beri eman du. Besteen artean, turismo-inbertsioetarako laguntzen konkurrentzia aipatu du, eta Ignaziotar bidearen seinaleak sartu direla azaldu du. 148. Zenbakidun Dekretuarekin jarraitzen du (lursailen lagapena). Ostean, Arabako Foru Aldundiak hirigintza-plangintza berrikusteko eta ingurumen-ebaluazio egiteko ematean dituen laguntzekiko konkurrentzia dekretuaz mintzo da, baita energia ziurtagiriak egiteko burututako esleipena Cantabrana ingeniartzaren alde, aipatuz EEEren diru-laguntza dagoela kostuaren zati bati aurre egiteko. Fotovoltaikoen proiektua Nafarkoop enpresari esleitu zaiola jakinarazten jarraitzen du, 1.331 eurotan. Aipatu du udako garbiketa-zerbitzuen kontratua aldatu dela igerilekuak zabaldu direnetik aldagelak garbitu behar direlako. Era berea, igerilekuak garbitzeko robota erosi dela jakinarazi du, aurreko robotak ez baitu funtzionatzen. Jarraitzeko, Antoñanako Arquillos de Arriba kaleko 1. Zenbakian dagoen egikaritze subsidiarioko espedientearen behin-betiko likidazioaren beri eman du, eta azaldu du Udalak gauzatu dituen lanak ordaindu beharko dituztela jabeek. Azkenik, Alkateak obra txikien espedientearen onarpena aipatu du, eta jakinarazi du udal-pilotalekuko frontisa konpontzeko diru-laguntza jaso dela, eta amaitzeko, udal-enplegurako laguntza onartzen duen dekretuaren beri eman du, eta laguntza horren ezaugarriak azaldu ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

3. 02/2023 KREDITU GEHIGARRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkateak bertaratutakoei jakinarazi die beharrezkoa dela hainbat jarduni dagokien gastuaren finantzazioa asetzea.

XEDAPEN ZATIA:

Honako kreditua gaitu egiten da hurrengo aktuzioak aurrera atera ahal izateko: Berguillako araztegiko ponparen hornidurari dagokion gastua ordaintzeko, rokodromora sartzeko barandaz hornitzeko, etxebizitza komunitarioko lehen solairuan errodapia instalatzeko, Kanpezuko Uzta Guneko argiaren hargunerako berezko lanak egiteko, lokala nekazaritza-ganberaren erabilera berrirako egokitzeko obra lanak egiteko, Kanpezuko Udala handitzeko obra lanak burutzeko, udal pilotalekuko frontisa konpontzeko lanak, lege aholkularitzako zerbitzua, udal-igerilekuetako tabernarako makina erregistratzailearen hornidura, Izki ADR aren behin-betiko likidazioa, udal-ibilgailuaren aseguruia, sorosleentzako ekipamendua, udal-igerilekuetako tabernako altzariak, ibilgailua erosteko ezohiko gastua, rokodromoko sarreran farola hornitzea, gazteleku lokaleko alokairua igotzea.

02/2023 KREDITU GEHIGARRIAREN LABURPENA	
IZENA	ZENBATEKOA

Berguilla araztegiko ponpa	2.069,10
Rokodromorako sarbideko baranda	2.354,53
Etxebizitza komunitarioaren errodapia	2.202,20
Senpako argirako obra	4.475,00
Nekazari Ganberako lokala egokitzea	34.841,95
Udalaren handitzea	141.196,49
Obra txikiak (frontotiko frontisa)	12.236,77
Lege-aholkularitza	52.272,00
Igerilekuetako tabernarako erregistratzeko makina	323,87
Izki ADR	833,78
Ibilgailu aseguruia	1.099,06
Sorosleen ekipazioa	192,41
Udal igerilekuak, tabernako altzariak eta sukaldea	314,52
Gimnasio sarreran farola jartzea	653,40
Ibilgailua erostea	599,04
Gazteleku alokairua	300,00
Autokaraben sarrerarako lorategia	3.000,00
Kirol-instalazioetako kamerak	925,89

Aurreko zenbatekoa ondoren aipatzen diren baliabideek finantzatzen dute, eta espedientea berdinduta aurkezten da, defizit gabe:

PARTIDA	IZENPA	ZENBATEKOA
87.000	Diruzaintzako gerakina	259.890,01

Bitarteko idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen aipirilaren 2ko 7/85 IEgaren 21 eta 22. Artikuluetan jasotako eskumenak eta aurrekontua gauzatzeko oinarrien 12.8 artikuluan deskribatutakoa aztertu dira.


ERABAKIA: Basterra, Muñoz, Ruiz de Loizaga, Quintana Urrea, Lopez de Luzuriaga, Garcia de Acilu Lopez de Alda eta Echagoyen jaun-andreen aldeko zazpi bozka eta Garcia de Acilu Perez eta Elorza jaun-andreen abstentzioarekin:

LEHENENGOA.- 02/2023 zenbakiko kreditu gehigarriaren konexio-espedientea onartzea, 259.890,01 euroko guztizko zenbatekoarekin, bertan agertzen diren gastu-partiden eta hura finantzatzen duten baliabideen xehetasunekin.

BIGARRENA.- Espediente hori jendaurrean jartzea, erreklamazioak egin ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. Artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat joko da.

4. NEKAZARITZA GANBERAREN OBRARAKO LANKIDETZA EKONOMIKORAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO



Alkateak hartu du hitza Udalaren eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarraren arteko interes komunaren berri emateko. Obrarekin beste sei bulego irabaziko direla azaldu du. Nekazar ganbera Euskaltegaren ondoan dagoen udal lokal hutsera pasako litzateke. Irigarritasun-araudia beteko da eta lokal berria izango da. Horrela, Administrazio Batzarra toki berean geratuko da, eta nekazaritza-ganberak gaur egun erabiltzen duen zatia ere izango du. Hori dela eta, Administrazio Batzarrak obraren kostu osoaren ehuneko berrogeita hamarra ordainduko du egokitzapenerako, eta espazioa erabiltzearen ordaina izango da.

Kanpezuko Udalak interesa du 2023-2024 urteko Foru Planaren programaren barruan dagoen udaletxea handitzeko obra, eta horrek esan nahi du gaur egun Kanpezuko Udaleko langileek, Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarreko langileek eta nekazaritza-ganberako langileek erabiltzen dituzten udaletxeko egungo lan-espazioak birbanatu behar direla.

Kontuan hartuta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. Artikuluak eta hurrengoek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 10.artikuluak lankidetz-esparrua eta koordinazio-esparrua, administrazio publikoei aitortzen diete hitzarmena onartzeko aukera, araudiak toki-erakundeei aitortzen dien eskumen-eremuaren barruan, eta zehazki, esleitu zaien interes publikoa asetzeko helburuarekin.

Udaleko Idazkaritza 2023ko ekainaren 21ean egindako txosten juridikoa ikusi da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21 eta 22 artikuluetan jasotako eskumenak eta aurrekontua gauzatzeko oinarrien 12.8 artikuluan deskribatutakoa aztertu dira.

XEDAPEN ZATIA:

ERABAKIA: Bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

LEHENENGOA.- Kanpezuko Udalaren eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarraren antean, erabiltzen ez den lokala Santikurutze kanpezuko gaztelurako igoera kaleko 6. Zenbakian dagoen nekazaritza-ganberarentzako bulego berrietara egokitzeak dakartzan gastuei aurre egiteko lankidetz-hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Proposamen hau Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari helaraztea, dagozkion legezko ondorioak izan ditzan, eta Alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko behar diren egintza eta izapide guztiak egiteko.

HIRUGARRENA.- Lankidetz-hitzarmena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraziko zaie, eta berariaz adieraziko zaie zein errekurtso jar daitezkeen.

5. KANPEZUKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAREN ARRETA ETA KUDEAKETA INTEGRALEKO ZERBITZUEN KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

2022ko ekainaren 7an, Kanpezuko etxebizitza komunitarioaren arreta eta kudeaketa integraleko zerbitzuen administrazio-kontratua formalizatu zen OSVENTOS

INNOVACIÓN EN SERVICIO (IFZ:B70493275) merkataritza-sozietatearekin, honako prezio hauekin:

- 51,30 euro/plaza eguneko, egoitza-arretako zerbitzuan okupatutako plaza bakoitzeko.
- 42,00 euro/plaza eguneko, egoitza arreta zerbitzuko plaza huts bakoitzeko
- 17,21 euro/plaza eguneko, arreta zerbitzuko plaza okupatu bakoitzeko
- 16,00 euro/plaza eguneko, arreta zerbitzuko plaza huts bakoitzeko

Urtebeteko iraupena izango du, eta urtebetez luzatu ahal izango da. Kontuan hartu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legearen 17. Eta 29.4 artikuluetan xedatutakoa.

Kontuan hartu da Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

XEDAPEN ZATIA:

ERABAKIA: Bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

LEHENENGOA.- Kanpezuko etxebizitza komunitarioaren arreta eta kudeaketa integraleko zerbitzuen administrazio-kontratuaren indarraldia 12 hilabetez luzatzea, kontratuan aurreikusitako luzapenarekin bat etorriz eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

BIGARRENA.- Gastua baimentzea eta xedatzea, Toki Erakunde honen indarreko Aurrekontu Orokorraren aurrekontu-aplikazioari, etxebizitza komunitarioaren okupazioaren arabera.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau kontratistari, kontratuaren arduradunari eta administrazio-espeditente honen eraginpeko administrazio-unitateari jakinaraztea.

6. KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Kontuen batzorde Bereziak, 2023ko apirilaren 18an egindako bilkuran, 2022ko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren aldeko txostena eman zuen.

Kontu Orokorra jendaurrean jarri da hamabost egunez, 2023ko maiatzaren 3ko ALHAOn (51 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharri aurkeztu.

Kontuan hartu da kontu orokorra onartzeko espedienteak aipatutako indarreko legedian ezarritako izapideei jarraitu diela.

XEDAPEN ZATIA:

ERABAKIA: Basterra, Muñoz, Ruiz de Loizaga, Quintana Urrea, Lopez de Luzuriaga, Garcia de Acilu Lopez de Alda eta Echagoyen jaun-andreen aldeko zazpi bozka eta Garcia de Acilu Perez eta Elorza jaun-andreen abstentzioarekin:

LEHENENGOA.- Kontu Orokorraren eta kontu hori osatzen duten egoeren onarpena behin-betiko egitea, arauz ezarritako epean jendaurrean jarri ondoren, erreklamaziorik edo eragozpenik aurkeztu ez direlarik.

BIGARRENA.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiari emango zaio kontu orokorra onartu ondoren, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan eta dokumentazioarekin.

7. LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK

Alkateak hitza eman die zinegotziei. Quintana Urrea andreak hartu du hitza, Kulturako zinegotzia del aldetik, eta datozen asteetan egingo diren kultura-jarduere berri eman du. Hasteko, uztailaren 1ean Orbison San Pedroren urteroko erromeria ospatuko dela esan du 12:00etan meza izango da Santa Luzian eta ondoren bazkaria. Uztailaren 2an ere erromeria izango da, oraingoan Bujanda, Alguaireko bizilagunen urteroko bisitarekin. Meza 13:00etan izango da, eta ondoren dantzei eta bazkari herrikoari lekua utziko zaie. Hurrengo astebururako, ostegunetik larunbatera, asteburu kultural bat dago iragarrita Antoñanan. Ostegunean, gitarra klaseak izango dira txikientzat, eta ostiral arratsalde-gauean bi Corterraza proiektio izango dira. Larunbat goizean jolasak izango dira txikientzat eta arratsaldean pintxo-potea eta kontzertua plazan. Ondoren, jakinarazi da asteburuetako Jaibus zerbitzua abiarazitzat jotzen dela, helmuga guztiak eta irteera eta itzulera ordu guztiak mantenduz. Jaibusaren helmuga Zufiga, Ancin, Acedo, Los Arcos eta Murieta dira. Azkenik, gogoratu da autobusa Kanpezuko hainbat tokitatik igarotzen dela.

8. MOZIOAK

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du bi talde politikoak, KAIXO eta EAJ-PNV, osoko bilkuraren aurretik elkartu direla mozioaren inguruan akordio bat lortzeko asmoz. EAJ alderdia ados dago Mendialdea IPIk aurkeztutako mozioarekin eta bere taldearen eskaera erretiratu du. Jarraian, Alkateak IPI mendialdeko ordezkariari eman die hitza:

Honako puntu hauek azaldu dira:

Lehenik eta behin, mozioaren edukian jasotako aldarrikapenak bere egiteko eskatu diote Kanpezuko Udalari:

IPI Mendialdea D eredu ikastetxe publikoa da, eta mendialdeko kuadrillako, Trebiñuko eta Nafarroako ikasleak jasotzen ditu. Jakinarazi du ikastetxearen apustua beti izan dela edozein desberdintasun eta aniztasun errespetatzea. Hiru etapak dituen zentro integrala da, hiru etapetarako tresna berdinekin funtzionatzen duen proiektu bakarra duena. Erregelamendu bera. Era berean, azaldu du ikastetxeak oso positiboki baloratzen duela bere ingurunea. Familia guztien, Udalaren, gizarte-zerbitzuen eta abarren parte-hartzea ere azpimarratu du.

Egoera horren aurrean, azaldu du ordezkariak hamalau irakasle proposatzen dizkiola haur eta lehen hezkuntzarako, hau da, ikasturte honetan baino 3,5 gutxiago. Bigarren hezkuntzarako hamasei dira, iaz baino bat gehiago. Proposatutakoarekin ezin izango da ikasleen premia berezietan lagundu, ezin izango da zuzendaritza behar bezala egin, ez baitute eskatzen zaien prestakuntza egiteko denborarik izango, eta ezin izango direlako ikastetxeko hiru etapak koordinatu orain arte bezala. Hau da, ezin izango da egonkortasuna sustatu. Ikastetxearen proposamena, ordea, ikastetxearen espezialitateak kontuan hartzea da, integrala eta landatarra den aldetik. Horregatik, zuzendaritza-lanpostu oso bat eskatzen dute, irakastordurik gabe, aholkulari-plaza oso bat, aniztasunari erantzuteko eta egonkortasuna bultzatzeko errefortzu-programak.

Jarraian, osorik transkribatzen da IPI Mendialdeak aurkeztutako mozioaren testua:

“MENDIALDEA IPI IKASTETXEA

MENDIALDEA IPI ikastetxeko, zuzendaritza-taldeak, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkio Kanpezuko Udaleko osoko bilkurari, eta bereak egin ditzala eskatu, gure ikastetxean funtzionamendu egokirako irakasle kopuru egokia izan dadin.

NONDIK ABIATZEN GARA?

Ikastetxe publikoa eta D eredukoa da. Euskal Autonomi Erdidergoko bi hizkuntza ofizialetan bizikidetzeta eta komunikazioa sustatzen ditugu. Era berean, euskal kultura ezagutu eta balora dezaten ahalegintzen gara. Horretarako, irakasteko eta ikasteko prozesua euskara da ikasteko eta komunikatzeko komunikazio-hizkuntza.

Gure ikastetxea landa-zentroa da, Arabako Mendialdeko, Nafarroako eta Trebifiuko ikasleek parte hartzen dute bertan, eta hurbileko hezkuntzaren aldeko apustua egiten dute, herriaren garapenean inplikaturik dagoena eta landa-eskola ikasteko leku bat baino gehiago dena. Gure komunitatearen funtsezko zutabea da, eta gure eskualdeko bizitzaren zati integrala. Gure eskualdea bizirik mantentzea gure eskola bizirik mantentzea da. Gure landa-eskola zaintzen eta sustatzen lagundu behar dugu, hezkuntza eta garapen komunitarioko zentro gisa.

Gure zentroa guztion erdigunea da. Ikasle bakoitzak duen izateko, pentsatzeko eta adierazteko edozein modu onartzen eta errespetatzen da, bere lekua aurkitzeko aukera eskainiz. Gure zentroan ez da bazterketarik onartuko, eta gizarte-elkarguneak sortzen saiatuko gara.

Ikastetxea IPI bat da, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituen ikastetxe publiko integrala, eta, beraz, hiru etapak hartzen ditu. Horrek esan nahi du ikasle guztientzat hezkuntza-proiektu komun bakarra dagoela, eskolatzen direnetik ikastetxean ematen diren irakaskuntzak amaitu arte, eta ikasle bakoitzaren bilakaera-etapak kontuan hartzen dituela. Antolaketa- eta plangintza-tresna berberekin ere funtzionatzen dugu, bakarrak eta komunak ikastetxe osorako, hala nola curriculum-proiektua, hizkuntza-proiektua, kudeaketa-proiektua, ikastetxearen urteko plana, urteko memoria eta antolaketa- eta funtzionamendu-araudia.

Kontziente gara landa eremuan kokatuta gaudela, eta positiboki baloratzen dugu. Ingurumena errespetatzea, zaintzea eta zintzoki kudeatzea erreferente nagusiak izan daitezten nahi dugu gure ikasleek haien arabera jokatzeko, eguneroko, indibiduo gisa nahiz gizarteko partaide gisa.

HEZKUNTZAREN KALITATEA

Esan bezala, gure zentroak berebiziko garrantzia du euskal kulturaren transmisioan. Transmisio horretan, euskararen erabilaren normalizazioa funtsezko zutabea da -bai eremu pertsonalean, bai akademikoan-. Beraz, euskara da ikastetxeko komunikazio-hizkuntza eta ikasteko hizkuntza nagusia.

Ikastetxeak ikasleei eskaintzen dien hezkuntza-arreta hurbilekoa, banakakoa eta integrala da. Ikasleen gaitasunak, trebetasunak, indarguneak, erritmoak, ikasteko interesak, kultura, adina eta curriculum-gaitasuna, bai eta beste inguruabar sozial edo pertsonal batzuk ere, gure ikastetxean aztertzen eta artatzen den hezkuntza-errealitatea dira, desberdintasunak errespetatuz eta ulertuz.

Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea ere garrantzitsua da ikastetxearentzat. Horrela, alde batetik, familien parte-hartzea bultzatzen da, eta horiek funtsezkoak dira hezkuntza-prozesuak eta -emaitzak hobetzeko; beste aldetik, hezkuntza komunitatearen eragile desberdinekin harremana sustatzen da.

HEZKUNTZA SAILAK EGINDAKO PROPOSAMENAZ

Ordezkaritzatik 23/24 ikasturterako lanpostuen zerrenda jaso dugu. Zerrenda horretan 14 irakasle esleitu dira Haur eta Lehen Hezkuntzan (ikasturte hau baino 3,5 irakasle gutxiago) eta 16 Blgarren Hezkuntzan (aurten baino 1 gehiago). Zuzkidura horrek honako hauek dakartza:

- Ikastetxearen aniztasunari eta premia bereziei ezin erantzutea.
- Zuzendaritza funtzioa eta zuzendaritza egonkorra finkatzeko beharrezko prestakuntza modu egokian ezin egitea.
- Zuzkidura horrek gure IPIren hiru etapak behar bezala koordinatzea eragozten du.
- Irakasleen egonkortasuna ez da sustatzen.

MENDIALDEA IPI IKASTETXEAREN PROPOSAMENA

Gure ustez, zentroaren berezitasunak ez dira kontuan hartzen, hiru etapa dituen eta landa-ingurune batean kokatuta dagoen zentro integrala baita. Horregatik, gutxieneko plantilla bat eskatzen dugu, beti honako hauek jasoko dituen:

- Ikastordurik gabeko zuzendaria.
- Aholkulari osoa.
- Aniztasunari laguntzeko programak, hala nola HBSP (Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa).
- Irakasleen egonkortasuna sustatzeko neurri bereziak.

Eta Hezkuntza Sailari eskatzea berriz azter dezala plantilla murriztea eta ezabatutako irakasleen hiru postu eta erditik gutxienez bi berrezartzea, gure ikasleentzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko.

Horregatik, guztiagatik eskatzen diogu Kanpezuko Udalbatzarrari, Mendialdea IPI ikastetxearen zuzendaritzaren iritzia entzun ondoren, bereak egin ditzala berorren aldarrikapenak, hezkuntza kalitatearen aldekoak, eta gure landa eremuan beharrezkoak diren baliabideak esleitzearen aldekoak.

Kanpezuko Udalak akordio honi Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari helaraziko dio, bere planteamendua birpentsatzeko eta inplikaturako eskola eragileen iritzia kontuan har dezan”

Amaitzeko, IPI Mendialdeko ordezkariek Kanpezuko Udalarari eskatu dio Hezkuntza Sailera joan dadila, egoera berriro ezartzeko eta gutxienez bi irakasle gehiago onartzeko eskatzeko etapa bakoitzerako.

Alkateak hartu du hitza, helarazi diren aldarrikapenak bere egiteko. Udalak Hezkuntza Sailari helaraziko dio aurkeztutako mozioa.

Garcia de Acilu jaunak hartu du hitza, eta azaidu du bere taidearen, EAJren, mozio oso antzekoa zela, ñabardura semantiko batzuk izan ezik. Logikoa denez, bere egiten ditu aldarrikapenak.

Jarraian, Muñoz jaunak hartu du hitza, eta azaldu du KAIXO taldeko bozeramaile gisa eta Partzuergoaren ordezkarri gisa, landa-eremuko hezkuntza sistema babesten duela. Bide bat markatu dela adierazi du, eta orain instituzio honek bide horrekin jarraituko duela dio. Esan duenez, mozioaren edukiak den azaltzen du. Ikastetxean seme-alabak dituzten edo izan dituzten familiak ados daude aldarrikapenarekin. Jarraian, Muñoz jaunak Alkateak ekainaren 17ko kargu hartzean IPI mendialdearen defentsari buruz esandako hitzak aipatu ditu. Diskurtsoak aurrera jarraitzen du, eta

zerbitzu publikoak desegiten ari direla dio, batez ere landa eremuan. Osakidetzako langileak eta orain ikastetxeko irakasleak aipatu ditu, besteak beste. Mendialderen defentsa oinarritzak dela dio, landa-inguruneke zerbitzurik gabe bizitza ezin baita existitu. Horregatik, KAIXO zerbitzu publiko guztien defentsa egiten du, eta ratio hitza ezabatzea proposatzen du. Landa-ingurunean ratioari dagokionez beste eredu batzuekin alderatzen hasten bada, ez da konponbiderik egongo. Muñoz jaunaren ustez, landa-ingurunea defendatzea, bizirik dauden herriak defendatzea eta bertako zerbitzu publiko guztiak defendatzea da modua. Horixe da Kaixo taldeak landuko duen puntu nagusietako bat. Amaitzeko, eskerrak eman dizkio EAJri bere mozioa kentzeagatik eta IPI mendialdearen aldarrikapenak batera aurkezteagatik.

Garcia de Acilu Perez jaunak hartu du hitza, eta azaldu du bere taldeak ez dituela Muñoz jaunaren adierazpenak izenpetzen. IPI mendialdeak aurkeztutako mozioaren alde bakarrik bozkatuko duela.

Ondoren, Mendialdea IPI ikastetxeak aurkeztutako mozioa onartzeko bozketa egin da, Kanpezuko Udalak bere egin ditzan adierazitako gogoetak eta ikastetxearen funtzionamendu egokirako irakasle kopuru zuzena defenda dezan.

XEDAPEN ZATIA:

ERABAKIA: Bertaratutakoek aho batez erabaki dute.

LEHENENGOA.- Mendialdea IPI ikastetxearen proposamena onartzea, bere berezitasun guztiekin batera, eta hezkuntza-kalitate ona lortzeko eta gure landa-eremuetan beharrezkoak diren baliabideak esleitzearen aldeko aldarrikapen guztiak bere egitea.

BIGARRENA.- Hezkuntza Sailari eskatzea berriz azter dezala plantillaren murrizketa, eta kendutako hiru lanpostu eta erditik eta irakasleetatik gutxienez bi berrezartzea, ikasleentzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkuraren erabakia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari helaraztea, eskola-eragileen planteamendua hausnartzeko eta kontuan hartzeko eskatuz.

9. GALDE-ESKEAK

Alkateak udal-bozeramaileen taldeari galdetu dio ea gairen bat adierazi nahi duten, eta ez da ezer esan.

Hurrengo Udalbaltza 2023ko uztailaren 11an arratsaldeko 20:00etan izango dela jakinarazten da.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkurari amaiera eman dio idazpuruaren eguneko 20:53ean. Nik, bitarteko idazkariak, horren fede ematen dut.

Alkatearen oniritzia



Idazkaria,

